

17-03-2024

Dimako Indusi-Olabarri auzoan dagoen San Frantzisko basilikatik abiatuko gara. Baltzolarako markatuta dagoen bidea hartuko dugu Indusi ibaia zeharkatuz (PR marka zuri-horiak). Laster helduko gara Jentilzubira, eta handik metro gutxira, eskuinera doan bidea utzi, eta aurrera jarraituko dugu bedar eta sasi artean bidezidor bat topa arte, bidezidor honi jarraituz Baltzolako haitzulora iritsiko gara (20 min).



Gutxi gorabehera 50 metro luze den haitzuloa zeharkatuko dugu, beraz, frontala edo linterna beharko dugu. Irteeran, seguruenik, eskalatzaileraren bat aurkituko dugu hormatik zintzilik, bide mitikoenetako baten estutzen, hala nola hain famatua den "Il domani" 9a zailtasunekoa.

Haitzulotik irtetean, bidezidor batetik 100 metro inguru ibiliko gara Abaro tunelaren bila. Tunel barrutik erreka bat doa eta zeharkatzean oinak ez bustitzeko uretarako egokia diren oinetakoak komenigarriak dira, edo aldatzeko pare bat eramatea badaezpada (10 min).



Tuneletik urten eta segidan hasiko gara aldapan gora Garaioko tontorrera heltzeko (574 m). Bertatik panorama ederra dago, Gorbeia, Itxina eta Aramotz mendilerroa bistan izango dugu (30 min).



Tontorretik pista batetik eta pinu-landaketa bat zeharkatuz jaitsiko gara San Lorentzo basilizara, eta bertan bazkalduko dugu (iturria) (45min).



Atsedenaldiaren ondoren pistatik behera abiatuko gara bueltan Indusira, baina oraingoan tunela eta koba inguratuz , eta ia azkenean Axlorreko kobazuloaren ahora hurbilduko gara, J.M. Barandiaranek aurkitutako Musteriar Aroko Bizkaiko aztarnategi arkeologiko zaharrena baita. (30 min)

Ibilbide honek gutxi gorabehera PR-BI 41 jarraitzen du, baina guk alderantziz egingo dugu, eta gainera Baltzola eta Abaro kobazuloak zeharkatuko ditugu. ([info gehiago](#))

OHARRA: Baltzolako kobazuloa denbora luzez itxita egon da 'Q sukarra'ren agerraldi baten ondorioz, bertan babesten diren animaliekin lotuta, baina zorionez, eta Dimako Udalak baieztatu digunez, agerraldia kontrolatu egin da eta berriro sartu ahal da kobazulora.

EUSKALMET Eguraldi iragarpena egunero gaurkoratuta

AEMET Eguraldi iragarpena egunero gaurkoratuta

METEOBLUE Eguraldi iragarpena egunero gaurkoratuta

Compártelo:

- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on X \(Opens in new window\)](#)
- [Click to email a link to a friend \(Opens in new window\)](#)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota GAILURRA TXIKI. Familientzako irteera

Kokapena

Metatutako desnibela + 350 m / - 350 m

Luzera 7 Km

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

Elkartzeko tokia eta ordua

Martxoak 17. 9:30etan. A3925 Bizkaibus geralekuan. (Hurtado de Amezaga, Abandoko geltoki alboan)

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Indusi (Dima).

Irteerarako izena emateko azken eguna

13-03-2024

Jakin beharreko kontu teknikoak

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Material tekniko beharrezkoa

1. Frontala edo linterna
2. Jarduerarako eta urte-sasoirako egokiak diren mendiko arropa eta oinetakoak.
3. Edaria eta janaria egun osorako. Iturri bat dago bide hasieran eta bukaeran.
4. Txikiek A4 plastikozko zorro batean eraman dezakete mapa, ibilbidearen datuak kontsultatzeko.
5. Ez ahaztu BARIK txartela, eta irakatsi txikiei erabiltzen.

Bestelako oharrak

KONTUAN IZAN

Irten aurretik,

1. Informatu : irakurri arreta handiz informazio-fitxa eta mapa , zure familiari egokitutako ibilbidea den erabakitzeke.
2. Motibazioa: Komentatu zure seme-alabekin ibilbidea , erakutsi argazkiak , emaezu haurren mapa marraztu eta margotu dezaten.
3. Prestatu motxila: kontuan izan urteko garaia eta egin beharreko jarduera , behar dena. Neguko igoera izango denez, posible da tontorrean elurra topatzea, beraz, eskularruak, txanoa, buff-a etab eramatea gomendagarria litzateke. Oso gomendagarria da txikiek ere beren motxila txikia prestatzea, hamaiketakoarekin

Mendian:

4. Familiak zarete zuen seme-alaben arduradunak. Umeak zaindu eta lagundu.
5. Gailurra mendi taldearen antolatzaileek ibilbidea eta jardueraren xehetasunak ezagutzen dituzte. Egin kasu mesedez.
6. Zalantzak edota arazoak antolatzaileekin komentatu, edo zuekin joaten direnekin.
7. Taldean: ez aurreratu eta ez atzeratu zure kabuz. Batzuetan geldituko gara taldea batzeko, beste batzuetan jateko edo jolasteko.
8. Landareak eta animaliak errespetatu. Ez bota harririk eta ez atera zarata handirik. Bildu eta eraman zure zaborra.
9. Ikusi eta ikasi: txikien jakin-minaz kutsatu, egon prest gauza berriak ikasteko, eta dakizuna konpartitzeko.
10. Sustatu laguntasuna. Gailurrera iristea polita da baina ez da garrantzitsuena.

IZENA EMATEKO

5. Web orri honen bidez. Partaide helduak eman behar du izena eta lerro berean gehitu seme-alaben edo ardurapeko adingabeen izenak. Adibidea : Pirritx Irrizabala + Pupu (5) + Lore (5)

Argibide gehiago:

Peio 665747zero25

